



EDUKIA / CONTENIDO

Por un consumo sostenible	01
Derioko mendiak, aberastasun berdea	01
Zikloturistak: mundua txirringaz ikusteko plazerra	02
El Txoko Lagun Onak cumple 30 años	02
Kontsumo arduratsua: betebeharra	02
Derio recicla en diez meses 27 toneladas de textil y mil litros de aceite	02
El uso sostenible del suelo y la contaminación centraron el debate	02
Cursos de Inserción laboral: abierto el plazo	03
Madrazo firmó en Derio más pisos protegidos	03
¡Invadidos por el virus Ukan!	03
Genero indarkeriaren aurkako manifestazioa	03
Gabonetako egitaraua proposamen berriekin	03
Elkarrizketa / Entrevista: Alejandro Laustanau	04
Gure natur gunek	04
Txorierriko IX. Ipuin Lehiaketa martxan	04
Janari-bilketa Sahararen alde	04



Derio
Udaleko Aldizkaria

Derioko mendiak, aberastasun berdea

Ser el centro del Txorierri nos aporta el mejor patrimonio

Inguruko mendien izenak galdetuz gero, ia-ia guztiok Artxanda, Pagasari edo Bizkargi aipatuko genituzke; gure herriko mendien izenak, ordea, ezezagunak izango lirarteke. Berri-ri ditzagun.

El término municipal de Derio se haya enclavado en la parte central del valle del Txorierri, con elevaciones montañosas al norte. Estas montañas forman parte del denominado *Sinclinorio de Vizcaya*, plegamiento originado en el Eoceno, hace 50 millones de años y que con origen en el Oiz recorre el territorio hasta terminar en Punta Galea, siendo las alturas más destacadas, aparte del Oiz, el Bizkargi, Berreaga, Mantuliz y Unbe. Fueron precisamente estas las últimas montañas originadas en territorio vizcaíno.

Izenak eta altitudeak

Los montes de Derio son de modesta altitud, siendo **Mantuliz** con 259 m. el que posee una cota más elevada. En la actualidad es

fácilmente identificable, ya que se están llevando a cabo en sus laderas las obras de la futura urbanización que incluirá un campo de golf. Pasamos al **Islabemendi** con 193 m. En esta pequeña colina se encuentra el caserío que le da nombre y el convento de Santa Clara ya en las proximidades de Artebakarra.

Más al sur, tenemos otra pequeña colina, denominada **Orroño Mendi** de 144 m. El caserío y molino de Orroño, situados en sus proximidades deben su nombre a este bello paraje. Cerca de allí tenemos el **Iperramendi** con 200 m. Este es el monte que se encuentra detrás de la Iglesia de San Cristóbal. En su ladera sur, se hallan los caseríos Artzaio, Olaburueta y Deurika, conformando la zona más genuinamente rural de Derio.

El **Untza** 214 m. situado más al norte, conforma junto al Iperramendi el pulmón verde del municipio. En sus laderas, que están cubiertas de plantaciones de pinos y eucaliptos,

Por un consumo sostenible

Hil arte kontsumitu? Eguberri berdeak

Argi, opari, apaingarri eta erosketak, hamaaaaaika erosqueta. Horrelakoak dira Gabonak. Egun horietan ohi baino gehiago gastatu eta kontsumitzen dugu, zentzuzko neurririk gabe, gure poltsikoari ez ezik, ingurumenari ere kalte eginez. Gaur egun munduari egiten zaion kaltea, ziur aski, ezinezkoa da kuantifikatzea, baina kalifikatu ahal dugu kalte hori: hondamena, errukirik eta pentsatu gabe, urte batzuen buruan gure eguneroko bizitzan eragina izango duten ondorioak sortuz.

Energia desagerturik (hainbeste argi!), papera barra-barra, hamaika ontzi, luxuzko elikagaiak eta aparteko janaria: kontsumo arduratsua, ekologiko eta solidarioaren antitesia da, naturarekin bakean ez dagoena. Gabonak, nahitaez, azpimundu horretan murgiltzen dira eta guk ere, hor bete-beteen sarturik eta herritarrak garen aldetik, zertxobait egin dezakegu egoera hobetzeko eta azken finean, alferrikako xahubide hau ekiditeko.

Zergatik sinesten dugu kontsumituz zoriotsuak garelako kontua?

Egia esan, geure burua kontsumitzen dugu. Erosteke grinak zoratu egiten gaitu eta gertu-gertuko errealitate ankerra ahantzazten digu: jendea goseak hilda. Ez da demagogia, egia hutsa baizik.

Gabonak, beraz, hausnartzeko sasoi izan behar dira, eta hori guztiok egin behar dugu: erakunde publikoetan, enpresa eta ikastetxetan, ikasleen artean eta lagunartean. Jai hauek ospatzeko modu jasangarriak egon badaude. Egin dezagun horrela!

Llega el Olentzero y se va el calvo de la lotería. Pero vendrá otro, no nos la prometamos tan felices: las tradiciones permanecen, cuestan pero se mantienen. Los productos vendibles se renuevan, se inventan nuevas formas para fomentar la compra compulsiva sin reparar en edades, todos compran, todos piden, asistimos a una nueva competición sin precedentes por adquirir el último avance en tecnología, por tener el juguete de moda, por engullir la más exquisita, lujosa y opípara comida. Nos disfrazamos, ¿llegaríamos a conocernos si nos mirásemos con unos meses de adelanto? Lo dudo.

Cobramos la extra y gastamos el doble en regalos, comidas,... consumismo. ¿Por qué no hacemos propósito de enmienda en las jornadas previas a la vorágine publicitaria navideña? En enero volveremos a experimentar esa sensación de estupor al hacer balance de lo gastado y consumido, un derroche nunca a nuestro alcance. Y vendrá un año nuevo, ¿abandonaremos el tabaco?, ¿iremos al polideportivo?, ¿padrinaremos un crío?... Pero tranquilos que pronto se nos avallanzará el Día de los Enamorados, el del Padre o el Medio Día del Club de nuestro equipo.

No espabilamos, no somos conscientes del daño que en nuestra economía particular experimentamos y del perjuicio global que producimos. Sostenibilidad, consumo responsable, reciclaje... no deben alejarse en estas celebraciones pantagruélicas. Grábense estas palabras cual tatuaje y ténganlas presente en cada acto navideño. Seguro que las uvas les saben y sientan mejor.

tos, encontramos algunas verdaderas selvas, donde campan a sus anchas los jabalíes. Otro monte que tradicionalmente ha pertenecido a Derio aunque desde hace unos años forma parte de Zamudio, es el monte **Iturritualde** o **Avril**, en las proximidades de Santo Domingo, denominado así en honor a un general francés de la época de la Guerra de la Independencia. Desde su cima, coronada por antenas y al pie de las ruinas del fuerte carlista, se divisan las mejores vistas sin duda de Derio, ¡anímate a descubrirlas!

“ La cota más baja del pueblo son 19 metros sobre el nivel del mar frente a los 259 de Mantuliz ”

Bitxikeriak Anecdótico

El punto más bajo de Derio se encuentra situado en las proximidades de Alfe, con apenas 19 m. sobre el nivel del mar. Con el consabido cambio climático, dentro de un siglo – quizá menos-, la costa vizcaína llegaría hasta este punto. Derio será para entonces y por tanto un pueblo costero.



ZORIONK

eta Urte Berri On



Zikloturistak: mundua txirringaz ikusteko plazerra

Derioko elkartean 25 kide daude eta txirringaren erabileraren aldeko ekimenak eskatzen dituzte

Más de 20 años, y muy cerca de las bodas de plata, lleva pedaleando el Grupo Cicloturista de Derio. Actualmente son unos 25 los aficionados a la bicicleta los que se reúnen para hacer salidas los domingos, aunque en sus mejores tiempos llegaron al medio centenar. Su actividad: de marzo a octubre realizan unas 25 salidas preparadas desde el comienzo de la temporada que distribuyen entre sus socios en un pequeño panfleto anual, en el que también destacan el calendario ciclista profesional internacional, porque no todo es practicar en este grupo.

Sortu zenetik elkarteak gauza ugari egin izan du Derion, esaterako, Erregeen Kalgataren antolakuntzan parte hartu zuen zenbait urtez, Autorik gabeko Egunean ere esku hartu du, eta, horretaz gain, txirringa-

ren egunean laguntzen du. Agustín Aurrekoetxea taldeko idazkariak Herriko Plazan txirringa- aparkalekua sortzea eskatu du, garraio eta merkataritzaren aldetik oso leku estrategikoan. Halaber, txirringa garraibide gisa kontuan hartzen duten errepide eta bideak eraiki behar direla uste du. Uribe parkea zeharkatzen duen bidegorria ere nahi du eta bere ametsa Txorierrri osoko bidegorria da. Ordura arte, taldeko kideak martxotik urrira arte Derioko kaleetatik ikusiko ditugu maillot urdin, gorri eta zuria jantzita dutela. ■



“ De marzo a octubre realizan unas 25 salidas ”

El Txoko Lagun Onak cumple 30 años



Abenduaren zortzian, Sortzez Garbiaren egunean, Lagun Onak txokoko kideek ospakizuna dute: 30 urteko adiskidetasun bikaina, otordu bikainak, hitzorduak, topaketak eta abestiak. Frankismoaren amaieran elkartu ziren, eta, harrezkero, elkarteak izaera berari eutsi dio. Txokoa Oso Pardo alboan dago kokatuta eta futbol taldea eta abesbatza, besteak beste, izan dira kideen artean. Azaroaren azken larunbatean ateak ireki eta auzokideekin ospatu zuten. Trikitixa eta janari-edari gozoa ez zen falta izan. Zorionak! ■

Kontsumo arduratsua: betebeharra

En Navidad el consumo de cada familia aumenta una media de 1000 euros

Comprar, comprar y comprar; es la palabra estrella de la Navidad. Desde regalos, a la comida de las cenas, que si quedamos con los amigos para despedir el año, que si el traje de Nochevieja... Gastos que llevan implícito un deterioro de la naturaleza. Pero claro, estas palabras -deterioro y naturaleza- no caben en nuestra Navidad.

Ontziak eta bilgarriak dira arazo nagusietako bat; izan ere, hondakin organikoak etxeko

zaborraren % 40 baino ez dira eta gainerako portzentajetik, % 80 ontziak dira. Ontziak ekoizteko natur baliabideak erabiltzen dira, esaterako, zuhaitzak eta petrolioia, eta lantegietan ere energia gehiago erabiltzen da erabat martxan daudenean. Zer esanik ez, Gabonetan kale eta dendetako erakuslehoetako argiak politak, bai, baina energia gastatzen dute.

Por otra parte, según diferentes estudios de asociaciones de consumidores, en época navideña hacemos un gasto adicional entre comidas y regalos de unos 1000 euros por familia. Mucho dinero que podemos reducir siguiendo unos simples consejos que ayudarán a mantener la economía familiar un poco más en orden, y el medio ambiente también. ■



“ Murriztu, berrerabili eta birziklatu: Gabonetarako hiru hitz ”

Gehien daukana ez da zoriotsuagoa, gutxien behar duena baizik. Erosi aurretik, pentsatu

Gabon ekologikoak eta solidarioak izateko aholkuak (Cómo vivir una Navidad ecológica y solidaria):

- Comprar envases retornables, y evitar en lo posible productos de usar y tirar: más cómodos pero también mucho más nocivos.
- Evitar paquetes con grandes envoltorios, y en caso contrario, reciclarlos correctamente. Una solución ecológica y original es envolver los regalos con papel de revistas o cómics.
- No utilizar árboles mi musgo natural; la mayoría de abetos tras la Navidad no sobrevive, usándolos contribuimos a la deforestación.
- Cambiar las bombillas normales por unas de bajo consumo.
- Para los juguetes o mandos utilizar pilas recargables.
- Bajar dos grados la temperatura del termostato, un buen jersey lo reemplazará; cada grado de más supone un aumento de la energía del 5 al 7 por ciento.
- En la cocina no descongelar los productos en el microondas, no abrir la puerta del horno sin necesidad y apurar al máximo la capacidad del lavavajillas y lavadora.
- Acudir a tiendas de comercio justo: pagaremos el precio real por el trabajo realizado para la fabricación de nuestra compra. La artesanía es siempre una buena opción.
- Evitar días de grandes aglomeraciones: compramos más y peor.

Derio recicla en diez meses 27 toneladas de textil y mil litros de aceite

Mankomunitateak oso balantze ona egin du

Hace ya casi un año que comenzó en Derio el servicio de recogida de aceite doméstico con una acogida por parte de los vecinos que no entraba ni en las mejores previsiones. Los botes para depositarlo se agotaron, con los meses se hizo necesaria la ampliación de este servicio de uno a dos días al mes (tercer martes y sábado en Aldekone Plaza y mercadillo o calle Euskal Herria), y los números hablan por sí solos: casi una tonelada de enero a octubre, siendo el mes de junio con 140 litros el de mayor volumen. El destino del aceite doméstico es su tratamiento para convertirlo en biodiesel, un combustible menos contaminante que los habituales.

Jantzien birziklapena: ekologia eta gizarte lana

Ehuna jasotzeko bi edukiontzia (bata Gernikako Arbolan dago eta bestea Bestorene kalean) 2005eko azaroan jarri zirenetik ekitaldi honetako urrira arte, ia-ia 30.000 kilo arropa, oinetako eta osagarri jaso dira. Ehunaren tratamendua Sociedad Cooperativa Berohi-k Cáritasek eta Rezi-

kletak lagunduta egiten du Zamudion, eta hor laneratzeko arazoak dituzten pertsonen lan egiten dute. Arropa desinfektatu eta lisatu ondoren, etiketa jartzen zaio, gero Ekoropa-ko dendetan saltzeko. Erabili ezin dena industriako eskutrapu edo tapizerian betegarri gisa erabiltzen da.

La recogida se hace los miércoles, y se recomienda que la ropa sea depositada en bolsas de plástico pequeñas y bien cerradas. Por otra parte, los enseres y grandes muebles que actualmente se recogen también son recuperados -el 75 por ciento de todo lo recogido- para su posterior valorización por la empresa Rezikleta. ■

“ Birziklatzeko arropak, erabat itxitako plastikozko poltsan utzi behar dira ”



El uso sostenible del suelo y la contaminación centraron el debate

Aurten, Tokiko Agenda 21eko azkenurreko foroak zati bi izan zituen ondo berezita; lehenengoan, hiriko lurzoru eta espazioaren antolamendu jasagarriaren ildo estrategikoak ezarri ziren, eta horiekin batera, zarata eta kutsaduraren aurkako neurriak. Halaber, Mantulizekin egingo den lotura fisikoaz zein elkarbizitzakoaz, trenbideak lurperatzeaz edo txukuntzeaz eta lonjak arautzeaz ere aritu ziren foroan eta, amaieran, hilerriko errauskailua eta aire zein ibaietako kutsadura landu zituzten.

La segunda parte sirvió como recordatorio del camino andado y como punto de partida de las jornadas venideras. La recapitulación sirvió para elogiar tanto la cantidad de participantes, de materias y asuntos tratados, como la calidad en el propio desarrollo del foro: debates interesantes, cambios de impresión, aportaciones, análisis... un buen año que anuncia grandes expectativas para el próximo. Y cambios.

Los cambios vendrán marcados por la asunción por parte de DerioKomunikazioa (grupo editor del Beitu) de la gestión del foro: estos, entendiendo la continuidad como premisa, dado el buen trabajo desarrollado por José Luis Ruíz de Eguino -técnico municipal-, expusieron sus intenciones anunciando la edición de un boletín informativo exclusivo, la apertura de una oficina de atención para los temas del foro, una nueva campaña abierta de captación de participantes y ante todo conservar la estabilidad y forma de trabajo de esta Agenda Local 21 modélica en toda Euskadi. Tokiko Agenda 21 en hurrengo hitzordua: abenduaren 14ean ■

Cursos de Inserción laboral: abierto el plazo

Behargintza 2007ko laneratzeko ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

Aurreko urteetan bezalaxe, data hauetan Behargintzak datorren urterako ikastaroen eskaintza egin du. Proposamenak lan-beharrizanak aztertu eta sumatuz egin dira, dauden lan eskariak betetzeko. Ikastaro guztiak 2007ko lehen hiruhilekoan egingo dira; ikastaroa bukatutakoan, kontratatze aukera egongo da.

Quizá el más interesante por sus posibilidades, y por lo que repercute en el bolsillo, es el dirigido a mujeres desempleadas con estudios básicos para la obtención del carnet de conducir B. La razón: en muchas ocasiones los trabajos que realizan requieren de movilidad y el coche es la solución para ello. 80 horas de teoría y 30 de práctica componen esta oferta.

Biztanleriaren eta, batik bat, gazteen etorkizuneko beharrezanetan ere pentsatu da, eta horri dagokionez, jantzigintza eta tindatze-

lanen ikastaroak nabarmen dira. Behargintzak, arlo horretan negozioak sortzeko asmoz abiarazi du ikastaroa, eta lantokian 300 orduz lan egitea eskaintzen du. Sukaldeko laguntzaile, saiakera ez suntsitzaileen ikastaroak eta metal-kalitatearen ikastaroak ere aurreikusita daude urtarilerako. Arlo horietan lan eskaera handia dagoela esan behar da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Sondikako Behargintza Txorierrin eskuratu ahal da. ■

“
Todas las ofertas tienen posibilidades reales de conseguir un contrato
”



Madrazo firmó en Derio más pisos protegidos



Momento de la firma del Convenio de Colaboración el pasado día 30

Urriaren 30ean, Derion, Javier Madrazok eta Lander Aiarzak lankidetzak hitzarmena izenpetu zuten, udal lur-zatietan babestutako 100 etxebizitza eraikitzeko. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak eta gure herriko alkateak

hitzarmenaren garrantzia nabarmendu zuten; izan ere, hitzarmenari esker, datorren urtean etxebizitza horietatik 77 zozketatuko dira, eta, horrela, etxebizitza babestuen eskaintza bermatu eta handituko da. ■

Genero indarkeriaren aurkako manifestazioa



Triste es tener que celebrar otro año más la manifestación contra la Violencia de Género. Necesario es recordar el drama: cada año son muchas las mujeres maltratadas, y en el peor de los casos asesinadas, por sus parejas. Es por tanto necesario concienciar, educar, llamar la atención de todos: víctimas, verdugos, cómplices, vecinos,... Sutondoan guío la marcha a la que se sumaron muchos otros participantes que finalizó con una suelta simbólica de globos blancos al azul cielo. Que no se vuelva a abrir este a ninguna víctima de estos falsos amantes. ■

¡Invadidos por el virus Ukan!

Euskara eta gaztelania elkarrekin bizitzeko kanpaina abiarazi du Eusko Jaurlaritzak

Un virus diferente ha llegado a toda Euskadi: el virus de la igualdad entre el euskera y el castellano, el que nos inmuniza contra la intransigencia, el que mejora la convivencia, la comunicación y la integración de los ciudadanos mediante el bilingüismo. Así es Ukan.

Una campaña que tiene a un curioso personaje de formas extrañas como protagonista, con la que se quiere hacer hincapié en la necesidad de impulsar el euskera sin la

exclusión del castellano. Una apuesta de convivencia feliz entre las dos lenguas de la que Ukan nos invita a contagiarnos. En Beitu no queremos inmunizarnos contra este virus, esperamos que tú tampoco. ■

Berbalagun en Derio: nuestro impulso al euskera normalizado

Berbalagun programa euskara ikasten ari direnei zuzenduta dago eta ikaslea eta euskara gelatik atera nahi ditu, normalizazioari laguntzeko. Tximintx taldekoak horretan dabilta. Egun, 30 lagun inguru daude 10 taldetan banatuta eta adina, gustuak, gurasoak diren ala ez... aintzat hartuz osatu dira taldeak. Jarduera edozein izan daiteke: kafea hartzeko gelditu, paseotxo edo kirolen bat egitea... den-dena euskaraz. Parte hartu nahi baduzu, garaiz zaude!

Ukan inmuniza contra la intransigencia y ayuda a entender que sólo desde la propia identidad cabe salir al encuentro de otras realidades



Gabonetako egitaraua proposamen berriekin

Los grupos y asociaciones vuelven a ser determinantes en su confección y en su buena marcha

Gabonak gainean ditugu eta ikastaroetan egiten den bezalaxe, gure elkarte eta taldeek balantzea egiten dute, eta gainerako auzokideei zeregin eta proposamenak eskaintzen dizkiete. Egutegian badago lekua beraiantz eta Gabonetako Kultur Astearen izenez, egitaraua osatu dute: jarduera interaktiboak, erakusketak, obrak eta kultur irteerak.

Destacamos la doble propuesta del Grupo DAT con un curso específico de fotografía para asociaciones y la exposición que mostrará en Larrabari sus avances y trabajos. Sutondoan también hace doblete en el primer fin de semana del nuevo año con dos obras diferentes. En la primera cita será el grupo veterano estable el que ofrezca la obra "Todos somos uno" mientras el domingo serán los nuevos incorporados -los niños- los que escenifiquen "Zumos y naranjas". El Coro Ipar-Alde protagonizará otra edición del Festi-

val de Villancicos los días 5 y 6 de enero y acompañará a Tximintx en el pasacalles del Olentzero.

Kultur egitaraua adin guztietarako da: ume, gazte zein nagusientzat. Ekitaldietara bertaratu gero, arrakasta bermatuta dago, esaterako, Olentzero edo Errege Magoen Kabalgata; horietara umeak ilusio handiz joaten dira eta Mungialde eta Txorierritik ere etortzen da jendea. Olentzero eta kabalgata, urtez urte, gero eta hobeak dira eta Gabonetan ezinbesteko hitzorduak dira Derion. ■



Argazkilaritza eta Sutondoan-en proposamen bikoitzak

Entrevista

Elkarrizketa

Alejandro Laustaunau

Gerente de Behargintza Txoriherri

Aurtengo azaroan bost urte bete dira Behargintza Txoriherri sortu zenetik. Harrezkero, lan-bilaketarako tresna baino gehiago den erakunde horren burua deriotar bat izan da

¿Qué es Behargintza Txoriherri?

Behargintza comenzó siendo un centro de empleo exclusivamente, pero hoy en día podemos decir que es más que eso. Trabajamos con las empresas desde otros puntos de vista que no son el trabajo en sí como puede ser la ayuda a mejorar su competitividad. También tratamos otros temas... la integración, la inmigración, la ayuda a las personas con difícil inserción laboral a través de auzolanen...

Horren harira, Derion lan gehiena auzolanetan egiten da, ezta?

Gizartean egoera ahulean dauden taldeen, oinarriko errentaren eta gizarte zerbitzuen jasotzaileen arloa diruz lagunduta dago eta gizarteratzearen eredutzat hartzen dugu, esaterako, zerbitzuetarako edo, kasu honetan bezalaxe, obrak egiteko. Gaur egun Larrabarriko txokoa eraikitzen eta Uribe parkean mantentze-lanak egiten ari dira. Era horretako zerbitzuen alde egin nahi dut; herriko langabeek egiten dituzte, ez dira profesionalak, eta epeak oso laburrak ez badira ere kalitateko lanak dira. Ekintza horietan gizarte arloko osagaia hartu behar kontuan.

Gure langabezia tasa % 4koa da; biztanleriaren hazkunde dela eta, auzokide gehiago izatean, aldatuko da tasa hori?

Auzokide berrien erosteko ahalmena maila ertain-altukoa izango dela uste dut. Lana izango dute, ziur aski, eta, beraz, egungo tasa ez da asko aldatuko. Biztanle horiek ekarriko dituzten beharriak direla eta, lan egiteko aukerak sortuko dira eta ondo erabiltzen baditugu, baliteke langabezia-tasa murriztea, esaterako, haurtzaindegia, tindategiak, zaharberrikuntza gaiak... Etorkizuneko eskariei erantzuteko prestatu behar dugu jendea.

¿Qué factor es el más importante a la hora de encontrar un empleo?

La clave es la disposición a trabajar, lo que llamamos la actitud hacia el empleo... y no en todos los casos es la deseable. Las empresas hoy en día me dicen: no te preocupes porque no sepan nada, yo les enseño, pero que tengan ganas. También es importante el nivel de necesidad, en Txoriherri el nivel de necesidad es menor que por ejemplo en Margen Izquierda, y por tanto el nivel de aceptación de ciertos empleos es también menor. Esto es duro decirlo, pero es una realidad.

Como deriotarra, ¿qué te parece el cambio que está experimentando el pueblo?

Está cambiando a mejor, es un trabajo de años y ahora estamos viendo los frutos; yo creo que se están haciendo las cosas bien. Se ha sabido diferenciar el núcleo social y las zonas industriales, y se ha conseguido que Derio no muera combinándolo muy bien. A mí me parece un claro ejemplo de cómo se pueden hacer las cosas. Yo además soy pro-empresas porque es una de las maneras de conseguir riqueza para después poder invertir en la ciudadanía, por supuesto, en un equilibrio sin llegar a los extremos.



“
Derion gizarte eta
empresa arloak oso
ondo uztartu dituzte
”

Gure natur gunek

Mientras Derio se llena de rojo ladrillo hablemos de lo verde

Azkenaldi honetan gure ondare berdea baino gehiago, eraikin berriak ditugu hizpide. Natur guneei dagokienez, gaur egun gure udalherriaren % 20 inguru zeharrez beterik dago, eta gehiena basogintza ustiapenerako erabiltzen da; horietatik, basoak hektarea batzuk baino ez dira, datozen belaunaldiei begira zaindu eta gorde beharreko ondare urria.

De los bosques originarios apenas quedan muestras, reducidas en la mayoría de los casos a pequeños *rodales* o ejemplares aislados. Por su climatología y relieve el bosque potencial en Derio sería el **robledal**, con **encinar** en las zonas más soleadas y secas y las **alisedas** en zonas húmedas, como en las riveras de los arroyos.

Natur basoak

De estos bosques naturales el más significativo es el de Aiertza, del que ya hablamos en el BEITU nº 5. Otro buen ejemplo de lo que fueron estos bosques lo tenemos en el robledal situado en las proximidades de la iglesia de San Isidro y el del caserío Gambe, con ejemplares jóvenes de unos 50 años, con algún árbol trasmocho ya centena-

rio. Próximo al Parque Rekalde, una docena de espléndidos **robles** conforman un agradable rincón que recuerda en cierta medida a la campiña inglesa. Cerca de allí y en la cima de una colina, una majestuosa **encina** con su espesa copa redondeada, no pasa desapercibida. Quizá sea este árbol junto con otro ejemplar situado cerca de Santiago Etorbidea de los más añosos de todo Derio, superando fácilmente los dos siglos de antigüedad.

En las proximidades de Deurika, varios ejemplares de robles salpican el paisaje, dando la nota de color en otoño, rompiendo así la monotonía de las plantaciones forestales próximas. De las alisedas cantábricas tan sólo quedan hileras de **alisos** y **fresnos** en los márgenes de los arroyos. Tan sólo una pequeña muestra se conserva todavía en el curso alto del arroyo Untzaga, fácilmente accesible a través del camino Zuburrutzu. La humedad del lugar ha propiciado la aparición de numerosos tipos de **helechos**, como el culantrillo y la lengua de ciervo, así como el cada vez más raro **rusco**, fácilmente identificable por sus hojas picudas y sus bayas de color rojo.

conoceDERIOezagutu

Txoriherriko IX. Ipuin Lehiaketa martxan



Urtero bezala, data hauetan, Txoriherriko Mankomunitateak Ipuin Lehiaketa antolatu du, adin guztietakoei irudimena askatu eta euskaraz idazteko aukera emateko, euskaraz idatzitako ipuinak aurkeztu behar dituzte eta. Hona hemen lehiaketaren oinarriak: gai librea, jatorrizkoak izatea eta, gehienez, lau orrikoak. Ipuinak udal liburutegian edo Mankomunitatearen Euskaraz Zerbitzuan aurkeztu ahal dira abenduaren 11 baino lehen. Zorte on

Janari-bilketa Sahararen alde



Como cada año desde el Ayuntamiento se impulsa la campaña de recogida de alimentos para el Sahara. De momento podemos adelantar que se podrán depositar del 18 de diciembre al 18 de enero en la Nagusien Etxea, Gazteleku y Ayuntamiento, y que los alimentos a recoger serán lentejas, atún en aceite, arroz, azúcar, y como en años precedentes, compresas.

“
Haritzak eta
arteak dira
Derioko
paisaiaren
berezko
ezaugarriak
”

200 urte baino gehiagoko arte hori zaharrenetarikoa da.



IBON MARLEY munduan **MOSKU**

Telefono interesgarriak

DERIOKO UDALA	944 541 019
AYUNTAMIENTO	FAX 944 542 832
UDALTAINGOA	44 543 725
SERVICIOS SOCIALES	944 542 243
SUHILTAILEAK - BOMBEROS	944 541 540
GARBIGUNE	944 034 090
HERRI IKASTETXEA - ESCUELA	944 541 246
UDALSAREAK - AVERIAS DE AGUAS	944 873 187
BEHARGINTZA TXORIERRI	944 536 370
INSTITUTUA - INSTITUTO	944 543 258
EUSKALTEGIA	944 540 062
MANKOMUNITATEA	944 540 350
KIROLDEGIA - POLIDEPORTIVO	944 540 159
GAZTELEKU	944 540 469
NAGUSIEN ETXEA	944 540 763
KZ GUNEA	944 543 486
OSASUN ZENTROA CENTRO DE SALUD	944 543 004
TAXI DERIO	944 800 909

BEITU ALDIZKARIA
beitu@deriokoudala.net

Legezko Gordailua: BI-1377-04 Inprimatza: Ediciones Beta